

horoskopoa

A R I E S
martxoak 21 - apirilak 20
Bihotz saminduen klubean?
Autobusak dirudizue: bat joan orduko, bestea!

T A U R U S
apirilak 21 - maiatzak 20
Zuretzat film guztiak beldurrezkoak dira, iluntasunak eragiten dizu beldurra.

G E M I N I
maiatzak 21 - ekainak 20
Apunte guztiak konfeti bihurtzeko tentazioa berriro. Lasaitu! Helduko da eguna!

C A N C E R
ekainak 21 - uztailak 20
Miami? Acapulco? Seychelleak? Bai zera! Bihar zazpietan berriro lanera.

L E O
uztailak 21 - abuztuak 23
Gauzak beltz jartzen direnean, edo gaua da edo kaskoa alderantziz duzu.

V I R G O
abuztuak 24 - irailak 23
Bizilaguna tronpeta saioarekin hasi da? Hartu gramola eta eraso egin mariatxekin.

L I B R A
irailak 24 - urriak 23
Zein goxo zeunden izara artean esnagailuak estalkirik gabe utzi zaituenean.

S C O R P I U S
urriak 24 - azaroak 23
Gauzak aldapaz gora jartzen direnean, kirolak ez egin eta joan funikularrez.

S A G I T T A R I U S
azaroak 24 - abenduak 23
Euri tanta bat bada, elefantetxoak dituen aterki berria aterako duzu.

C A P R I C O R N U S
abenduak 24 - urtarrilak 20
Triste ikusi duzu. Zure begiradaren zain denbora askotxo pasatuko zuen.

A Q U A R I U S
urtarrilak 21 - otsailak 18
Elurra gustukoa duzula jakin balute, elur kainaia oparituko zituzten.

P I S C I S
otsailak 19 - martxoak 20
Zein bufanda polita jantzi duzun gaur; dena den, urtarilla beroa dator.

Uxue Agirre

efemerideak

Juan Krisostomo Arriaga hil zen

1826ko urtarrilaren 16an Juan Krisostomo Arriaga musikari bilbotarra hil zen 20 urte zituelarik, Parisen. Hamaika urterekin *Ensayo de octeto Nada y Mucho* obra idatzi zuen. Hamabi urterekin adituek perfektutzat jo dituzten bi opera idatzi zituen: *Los esclavos felices* eta *Variaciones, La Húngara*. Hamasei urte zituela Parisera joan zen eta bertan idatziko zituen bere obra aipagarrienak: *Cuartetos de arco*, *Tres estudios o crapichos Erminia y Medea*, *Edipo*, *All'Aurora* eta *Agar*. Bilboko antzoki nagusiak Arriaga izena du haren omenez.

1332 Donostiako hesien inguruan haize errotak erakitze baimena eman zuen Espainiako Alfontso XI.a erregeak.

1877 Euskal Udalen Batzarra egin zuten Etxarri-Aranatzen.

SANTUAK ernardo, Martxel.

telebista - irrátia

plano hurbila

◆ Aitor Furundarena ◆ 'Euskaraokea'-ko aurkezlea


«Argi daukat, momentu hauetan, musika dela nire bide printzipala»

Akordeoi jole ezaguna da. Disko bi kaleratu ditu, eta beste bat ateratzeko lanean ari da. Baina urritik telebistan ere agertzen da. Ixiar Orejarekin batera, 'Euskaraokea' aurkezten du ETB1ean. Hala ere, momentu hauetan argi du musika dela bere ofizioa, bide nagusia.

I.Basterretxea/Donostia

■ Urriaren 1ean hasi zinen *Euskaraokea* aurkezten. Zelako jautzia izan da musikatik telebistarakoa?

Oso esperientzia ona iruditzen zait, eta gauza asko ematen dizkit. Nahiz eta ez naizen ibili behin ere telebistan, ez naiz oso urruti sentitu, lehen egiten nuenarekin konparatuta. Beste gauza bat da, bai, baina zenbait gauzaren ikuspegia berdintsua da batean eta beste. Publikoaren aurrean egiten duzu lan, eta zerbait komunikatu behar diozu. Zer komunikatu eta nola komunikatu pentsatu behar da. Jendearekin nola konektatu pentsatu behar duzu, komunika-



zioa bideratzeko. Eta musikan ere antzekoa egin behar izaten da; eta niri musikan beti gustatu izan zait eskaini behar den hori ahalik eta modurik egokienean aurkeztea. Azken batean, jendearengana iritsi behar duzu, baina monotoniatik ihes egiten ere ahalegindu behar duzu. Alde horretatik antzekoak dira. Eta, beno, telebistakoa esperientzia polita da niretzat, baina nik argi daukat oraingoz musika dela nire ofizioa, nire bizibidea, edo bide printzipala.

■ Umoretsu, alai agertzen zara beti kameraren aurrean.

Zein da horretarako sekretua? Ala halakoxea zara?

Nik, zorionez, ez dut sekula izan nerbioen arazorik, eta horrek asko lagundu dit jendearen aurrean agertzeko. Nire ustez -eta nire ingurukoek ere hala esaten dute-, nahiko alaia naiz. Pixka bat serio nagoenean edo, galdetu egiten zaidan. Nire bizitzako filosofia alaitasunarekin bat dator; alaitasuna eta umorea oso garrantzitsuak dira nire ustez.

■ Aktore lan gutxi egiten duzu, beraz, kameraren aurrean?

s o s l a i a

Ordizian jaio zen, orain dela 27 urte.

Hamaika urterekin hasi zen solfeoa ikasten eta 12rekin akordeoia jotzen.

Atzerrian ere izan zen, akordeoia eta konposizioa ikasten; hiru urte egin zituen Parisen eta urtebete Kopenhagen.

Nazioarteko hainbat sari irabazi ditu akordeoiarekin. «Ez zait gustatzen txapelketa honetan lehendabizi, bestean bigarren, beste hartan...» esatea; nahiago dut sari batzuk irabazi ditudala esatea, besterik gabe, esan digu, umil.

Ba, bai. Aurkezle lana egiten ari naizela esan dezaket, baina aktore lana, ez nuke esango. Beno, maila baxu-baxu batean, agian bai, baina gutxi.

■ Zer ekarpen egin diezaioke saioari zu eta Ixiar Oreja musikariak izateak?

Garrantzia izango du, baina *Euskaraokea*-n gu aurkezleak gara, eta guk iritziak ematen ditugu, eta musikari dagokionez ere bai, baina neurri batean. Azken finean, gu ez gara erabakiak hartzen dituztenak, aholkulariak bai, baina besterik ez.

■ Komunikabideei dagokionez, baduzu beste proiekturik esku artean?

Oraingoz ez. *Superbat*-en jarraitzen dut *Euskaraokea* aurkezten, baina ez dut beste proiekturik begi-bistan.

■ Eta musikari dagokionez?

Furunda taldearekin material berria prestatzen ari gara, beste disko bat egiteko asmoarekin. Patxi Kaleko izeneko taldeko kide ere banaiz, Urbil Artola, Ritxi Salaberria eta Mikel Izulainekin batera. Irlandako folk musika eta euskal musika zaharra egiten dugu talde horretan. Patxi Kaleko proiektua berria da, orain dela astebete eman genuen lehendabiziko kontzertua, eta ikusiko dugu ea pixka bat funtzionatzen dugun. Aspalditik nabilen ezkontzetako talde batean ere jotzen dut. Lana neurrian dugu, eta jarrai dezala horrela.

t . x . o . r . i . t . x . o . a . r . i . m . o . k . o . k . a

Ausartu zaitez, maitea

ATZOKO artikuluekin jarraitzea saihes-tezina daukat gaurko honetan. Izan ere, kazetariel buruzko telesailari buruz idatzi nuen. Baina badago *Periodistas* programan nik esandakoak baino askoz ere gauza harrigarriagorik. Irakurle bezala, gogoratuko dizue *Médico de familia* hasi zenean hainbat erizain talderen kezak; Lola Baldrichen rola guztiz iraingarria iruditu zitzairen ospitaleetan aritzen diren hainbat langileri. Eta ez zitzairen arrazoirik falta, neska arrunt, ezjakin eta guztiz objektual bezala azaltzen zen. Erabiltzen zuen hizkuntzaren pobrezia nabaria ahaztu gabe, noski. Ba, joan den astean hasi zen *Periodistas* telesailaren ere gauza berbera gertatzen da egunkariko argazkilariarekin. Matxista, trosko, eta gordin bezala deskribatu zuten Tele 5eko gidoigileek. Ez dut esango hainbat argazkilari guztiz nazkagarriak ez direnik. Eta orain dela hiru egun kamerari- en gainean bota nituen lore beltzak zuritu nahi gabe, ozen esan dezaket, ordea, argazkilariak egiten duten lana irakurleak egunkarietan lehendabizi ikusi nahi duena dela. «Irudi batek mila hitz baino gehiago balio du», dio esaera espainol zahar batek.

Kazetari bezala, zintzo diotsuet: askoz ere errazago idazten dira mila hitz munda- ri buelta emango dion argazki on bat lortzea baino. Ez dut argazkilarien kolekti- boaren defentsa egin nahi. Horiekin kon- tuz ibili behar da. Zazpi aldiz zazpi gorpu

zapalduko lituzkete beren sinadura izango duen irudi morbosoen bila. Eta hala eta guztiz ere, profesionalak dira. Hemendik aurrera hobe *Periodistas* saio arreta han- diagoarekin ikusten badute. Arartekoa- rengana joan daitezela beren irudia defen- di dezala eskatzera. Hori argazkilarien la- na albiste bihurtuz gero, metapublizita- rñoa izango zen. Iritzi publikoaren jarrera, agian, ez zen hain defentsiboa izango pro- fesional horiekin. Beno, optimismorik ga- be. Hori ezinezkoa baita. Hurrengo astea arte utziko dugu kolektibo honek neurriak hartu dituen ala ez jakiteko. Oso dibertiga- rria izango litzateke. Kazetariok lehendik ere nahiko txarto ikusita ez bageunde be- zala, orain argazkilariak bere irudi duina, begi onekoa, errespetua eta zuzentasuna aladarrikatzen hastea besterik ez zaigu fal- ta. Denok gozatuko genuke. Portzierto, txotx garaiari hasiera emateko, zergatik ez aukeratu sagardoa gustatzen zaion bat? Ez dago Indurain baino ezer tristeagorik hain dekoratu ludikoan. Hiletak *animatze- ko* agian balio dezake, baina arteak eta bi- zitzak zerikusirik ez dutela adierazten duen diskurtsoa baieztatze bizi- kleta gainean artista denak bizitza publikoan ez du zeregirik. Horretan *The Independent* egunkariko zuzendariak ibili ziren fin. «Nahiz eta munduko txirrindularirik one- na izan, Indurainek ez du ezer esateko». Horrela erantzun zioten irakurle bati.

Ines Intxausti